


Ederto, hitz egin dezagun migrazioaz



SONIA GONZÁLEZ
IDAZLEA ETA ABAR



PAULA ESTÉVEZ

Soka luzea ekarri du eztabaidak. Idatzizkoetan ez ezik, baita lagunarte eta bazkalosteetan ere. Suhar eta kartsu zenbaitetan. Eta ez da gutxiagorako. Egia. Honetaz hitz egin behar dugu.

Migrazioak areagotu baino ez dira egingo datozen urteetan. Sistema, bere krisi eta kontraesan anitzetan zangotrabaturik, zauritutako basapizti bihurtzen ari da eta zorrotzago egingo du haginka.

Migrazioek jatorrizko herrialde eta jendarteetan egiten dute minik handiena. “Inork ez du bere etxea uzten, etxea marrazo aho bilakatu ezean”, dio Warsan Shire somaliar poetak. Hainbat urte lehenagoko Sarriren “Nekez uzten du bere sorterrria sustraiak han dituenak” gogorarazten dit.

Kausak dira konpondu beharrekoak. Jakina. Baina hori esate hutsa asmo hutsala baino ez da, kapitalismoaren makineria osoa gelditzeaz ari garenez gero. Eta, Heraklesen lana lortzen dugun bitartean, zer? Ateak itxi? Ederto. Baina hipokrisia barik. Itxi ditzagun guztiz, baita lehengai, elikagai, ongarri eta enargiarako, baita esportatzen ditugun zabor tonetarako ere. Denbora laburrean hotzak eta goseak hilda egongo ginateke Europa osoan, kakatzan itota.

Ez gara gu makineria horren sokak

mugitzen ditugunak, baina hango espolioaz profitatzen gara. Artikulu hau irakurtzen ari zaren –idazten ari naizen– ordenagailu edo mugikorra lekuko daukagu, bere koltan, tantalio, wolframio eta abarrekin. “Superelikagai osasuntsuak” jartzen ditugu modan Ipar Globalean eta, segidan, jendea euren lurretatik botatzen dute. Jantzen ditugun erropen inguruan berba ez egitearren. Eta ez, kontua ez da zilizioa mesanotxetik ateratzea, baina kargu har dezagun geu ere makineria horren parte izan bagarela.

“Nahikoa daukagu hemen daukagunarekin” esango lidake batek baino gehiagok. Baliteke. Hortaz, pentsa dezagun zein neurri har daitezkeen hementxe berton, baldintza hobeagoak eskuratzeko, denok.

Migrazioa lan balditzak kaskartzeko erabiltzen da. Ados. Hori ekiditeko modua ez al da, besteak beste, lagun horiei guztiei eskubide guztiak bermatzea, edozein lan edozein egoeratan onartzerara behartuta egon ez daitezen? Egoera irregularrean egotearen ondorioz, Dasmoklesen ezpata buru gainean izan ez dezaten?

Gero eta ordu gehiagoz egiten dugu lan eta aberatsekiko arrakala gero eta sakonago doa. Lana (eta aberastasu-

na) banatzea da gakoetako bat. Zaharra, baina funtsezkoa. Denok lan egin dezagun, kapitalismoa erreserba-armadarik gabe utzi eta, gainera, ordu gutxiagoz izan gaitezen esklabu. Denok.

Bestetik, beste herrialde batzuetatik etorri direnak borroka nazionalari kontrajartzea “mediku ona ala euskalduna” bezalako hautu faltsu eta interesatua da. Seguru nago hirietan harremantzeko arazo handiagoak badaudela, baina nik ingurura begiratu eta auzokideak, lagunak, lankideak, senideak ezagutzen ditut. Ni ere ezagutzen nauten herriki-deak, hitz bitan. Loturik gaude. Ez esan horiek guztiak *Bestea* direnik.

Migrazioak gure Herrian eragina duela errealitate eztabaidagaitza da. Kontua da zelan ezaugarritzen dugun etengo ez den fenomeno hori. Herrikide horiek arrisku moduan ikusten baditugu, erruduntzat seinalatuko ditugu; migrazioa zailtasun moduan ikusiz gero, ordea, zailtasun horri aurre egiteko ardura gure sorbalden gainera ekarri beharko genuke.

Lehenbizikoa bide errazena da eta faxismo soziologikoa elikatzen du. Honen tresna nagusienetako bi atontzen ditu mahai gainean: zapalduen artean “gu” eta “eurak” taldeetan bereiztea eta biktimak borrarero bihurtzea. ●